

KALITATE POLITIKA

ADEMBIk, modu eraginkorrean lan egiteko barruan eskatzen diren Kalitate beharretara egokituta, Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat du, eskuliburuan deskribatua eta Prozeduren Eskuliburuan garatua, UNE-EN-ISO 9001:2015 Nazioarteko Arauen betekizunen arabera. Zuzendaritza Nagusiak berariaz adierazten du **ADEMBIn** kalitatea sustatzeko funtsezko konpromisoa duela, honako puntu hauek betetzea lortzeko:

- Helburu nagusia erabiltzailea asebetetzea da eta, horretarako, eraginkortasunez lan egingo da Esklerosi anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.
- “Kalitate Kultura” izatea gure erakundearen barnean.
- Langile arduratsuak eta prestatuak izatea.
- Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du lege- eta araudi-eskakizunak edo beste betekizun batzuk betetzeko.
- ADEMBIn jardueretan akatsak erabiltzea kalitate-mailak hobetzeko, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatuz.
- Zentroak ematen duen zerbitzurako egokiak diren baliabide materialak izatea.
- Zuzendaritza Nagusiak, Prestakuntza eta Motibazio Planaren bidez, ziurtatzen du bere Kalitate Politika langile guztiek ulertu eta onartzen dutela, eta barne-auditorien bidez egiaztatzen du Kalitatea Kudeatzeko Sistemak bere efizientzia eta egokitzapena mantentzen dituela.

2017ko Ekainak